

XEDAPENA, 2023KO MARTXOAREN 30KOA, OSATEK, S.A-KO ZUZENDARI GERENTEARENA. HORREN BIDEZ ONARTZEN DA, ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, ADMINISTRAZIOKO OFIZIALEN KATEGORIAN ETA OSATEK-EN DESTINOAREKIN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO, MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren OSATEKEN destinoa duten administrazioko ofizialen kategorian lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2023ko martxoaren 17an emandako xedapenaren bidez, onartu egin zen OSATEKEN destinoa duten administrazioko ofizialen kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko merezimendu-lehiaketa bidez onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko epea amaituta, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda egin ondoren, zuzendari kudeatzaileak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartu du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adierazi ditu.

Era berean, eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorren 10. oinarriarekin bat etorritik, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiaren bidez, merezimenduak bidaltzeko epea irekitzen da.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraztea. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan jasota dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKEN webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/>) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: 10 eguneko epea ematea izangaiei merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, Campo & Ochandiano enpresaren web-orriaren bidez (www.campo-ochandiano.com) edo OSATEKEN egoitzan: Urkixo zumarkalea 36, 5. Solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011 Bilbo.

Bilbon, 2023ko martxoaren 30ean

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz